

Mondragoneko ikasleak Europako First Tech Challenge lehiaketan

2013/01/24

Mondragon Goi Eskola Politeknikoko Fabrikazio Mekanikoko Diseinu eta Sistema Elektrotekniko eta Automatizatuak heziketa zikloetako bigarren mailako bederatzi ikaslek First Tech Challenge nazioarteko robotikako lehiaketan parte hartuko dute. Lehiaketa martxoaren 17an izango da, Tarragonako Palau Firal i de Congressos-en. Taldeak Robotek du izena, eta estatuko hainbat eskualdetatik zein Holanda, Errusia eta Estatu Batuetatik joango diren 17 parte hartzaileen artean euskal talde bakarra da. Asteburu horretan bertan jokatuko dira baita ere FLL eta Jr. FLL lehiaketan final estatalak, eta espero da ekitaldira 2.000 pertsona joango direla.

First Tech Challenge (FTC) First Lego League (FLL) ezagunaren goi mailako kategoria da. Robotikako lehiaketa 18 eta 23 urte arteko ikasleei zuzenduta dago, eta kideek robot bat diseinatu, fabrikatu, muntatu eta programatu behar dute, modu autonomoan zein telegidatuan lan egin ahal izango duena, aurrez definitutako joko arau batzuen arabera.

Aurtengo helburua da ahalik eta puntu gehien batzea, jokalekuaren erdian egongo den esekileku batean uztaiak sartuz.



Bigarren zikloko ikasle taldea